

Mozio arrunta, Altzako Institutuak dituen musikako irakasleen beharrari buruz

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du Altzako Institutuak dituen musikako irakasleen egoerari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalbatzan ordezkariak dugun taldeok hiriko hezkuntza publikoaren eskaintzari eusteko konpromisoa adierazi dugu. Horretarako, gure hezkuntza komunitatearen eskaera eta kezka oinarridunei erantzuteko politikak sustatzen ditugu.

Abenduan jakin genuen, sindikatu baten bitartez, Donostiako Altzako Institutuan zenbait ikasle musikako irakaslerik gabe daudela eta lehenengo hiruhilekoan ikasle horiek ez dutela kalifikaziorik eraman ikasgai horretan.

Altzako BHI institutu publikoa sortu zenetik, hezkuntza eskakizunak etengabe aldatu dira eta legeek, aldaketa pedagogikoak zein aurrerapen teknikoek ikastetxea bera aldarazi dute. Ikastetxeak beti erantzun die behar berri guztiei, gizarteak bezalaxe, Altzako institutua etengabeko prestakuntzan aritzen da bere zerbitzuak hobetzeko. Hori dela eta, kalitatezko hezkuntza publikoaren alde egiten dute, ikaslearen formazio integrala helburu, pertsonak garatzen saiatzen dira, ikasle ezberdinen behar ezberdinei erantzunez.

Altzak biltzen duen lur-esparrua zabala eta anitza da eta, era berean, ikastetxean biltzen den ikaslegoa horrelakoxea da. Institutua, hartara, ez da ezberdina, auzoan ondo errotuta dagoela. Altzako gizarte eragile aktiboa da institutua, auzoko gazteriaren hezkuntzaz arduratzen dena beraien bizitza garatzen den tokian bertan.

Halaber, Altzako Institutuko hezkuntza proiektua ez dago aurrera ateratzerik, horretarako baliabiderik ez bada jartzen. Lehen hiruhilekoan hezkuntza komunitateak, gurasoek eta zuzendaritza-taldeak, konponbide bila, Lurralde Hezkuntza Ordezkaritzara jo dute eta ez dute egoera zuzentzerik lortu. Gauzak horrela, Altzako Institutuko ikasleek urtarrietik aurrera musikako kalifikaziorik gabe jarraituko dute eta ordu horiek zaintza orduak izaten jarraituko dute.

Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren interes eta eskubideak. Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, Altzako Institutuaren eskaera legítimoak erantzuna izan dezan. Horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Altzako Institutuko eskola komunitatearekin lankidetzan jardun dezala, auzoan kalitatezko hezkuntza zerbitzu publikoa bermatzeko.
2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta azkarren Altzako Institutuak dituen musika irakasleen beharra asetzeko, geratzen diren hilabeteotan ikasleek musikako kalifikazioa izan dezaten.
3. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hirian kalitatezko hezkuntza publikoa bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak jarri eta murrizketa politiketatik at utz ditzala.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 5ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.